

BALIOA

DeToxMe proiektuak eskaintzen duen balio-proposamena zabala da eta erabiltzailearentzat onura zuzenak eta neurgarriak sortzen ditu hiru ardatz nagusitan. Lehenik, ongizate mentala eta Produktibitatearen hobekuntza zuzena dakar. Gailuaren erabilera murriztearen ondorio zuzena estres digitalaren, loaren kalitatea eta kontzentrazio-gaitasuna hobetzen ditu. Gure balioa ez da soilik denbora neurtzea, baizik eta denbora hori berreskuratzea. Bigarrenik, menpekotasun digitalaren kudeaketa aktibo eta positiboa sustatzen du. Beste blokeo-aplikazio batzuek ez bezala, DeToxMe-k ez du penalizazio sistema batetik funtzionatzen, sari sistema batean oinarritzen da: ohitura negatiboa ohitura positibo batekin ordezkatu eta sustatzen da. Erabiltzaileari bere ohituren kontzientzia ematen zaio datu ulergarrien bidez. Azkenik, ahalegin pertsonalak (pantailari eskainitako denbora murrizteak) baliozkotze erreala jasotzen du. Pizgarri ekonomiko honek motibazio extra bat sortzen du, "desintoxikazio bikoitza" lortuz: erabiltzailea digitaletik deskonektatzen da eta, aldi berean, bere auzoko edo hiriko komertzio errealekin konektatzen da.